

Hizkuntza-ohituren aldaketak: gako teorikoetatik egoera errealetera

Tailerra

Pello Jauregi, HUHEZI, Mondragon Unibertsitatea

Pablo Suberbiola, Soziolinguistika Klusterra

Taldeka lan egin da tailerrean:

- 8 lagunek 8 talde
- Ondorengo hiru ariketak egin ditugu:

- [ARIKETA – 1]

- a) Hizkuntza ohituren aldaketak direla eta, zuen inguruko errealitatean, zein zailtasun edo ARAZO erreal ikusten dituzue? Egin ZERRENDA bat.
- b) Aukeratu zerrenda horretatik, gai honetan zuretzat arazo garrantzitsuena dena, edo zuri gehien inporta zaizuna.

- [ARIKETA – 2]

- Irudikatu ekintza edo egoera sozialak, ondorengo sentipen hauek sor ditzaketenak, sentipen edo emozio horiek lagungarriak izanik aukeratu duzun arazo horretan hizkuntza ohiturak aldatzeko. Ez da baloratu behar momentuan ekintza horiek zein zailtasun edo eragozpen izan ditzakeen, jolasa da bakarrik, ideiak sortzeko (ez horiek baloratzeko).
 Proposatutako sentipenak:

- “Amorrazioa”
- “Enbidia”
- “Injustizia”
- “Tokiz kanpo egotea”
- “Apustua – desafioa”

- [ARIKETA – 3]

- Fitxetan jarri dituzuen ideia edo ekintza berri posibleetatik hautatu gehien gustatu zaizuna:
 - Borobildu – itxuratu.
 - Azaldu bakoitzak berea taldeko beste 7 kideei.

Azpiko tauletan dituzue 3 ariketa hauetarako tailerrean parte hartutako lankideek idatzitako arazo eta ekintza posibleetako batzuk:

[ARIKETA – 1]

Hizkuntza ohituren ALDAKETAK direla eta, zuen inguruko errealitatean, zein zailtasun edo ARAZO erreal ikusten duzue?

A) Zein da horien artean garrantzitsuena? Zuri gehien inporta zaizuna?

1	Bilera batean erdaldunen kopurua txikiagoa izanik, besteak erdarara ekartzea. Euskaldunek euskarari ez eustea.
2	Pertsonen arteko harremanetan, finkatua dagoen kode linguistikoa aldatzeak tentsioa sortzen du.
3	Eraginkortasunaren izenean: aldaketak oztopatuko du, motelduko du.
4	12-16 urte bitarteko kasuan, baztertua izatearen beldurra, lagunarteak ez onartzea.
5	Lan erritmoak, eguneroko lan-jardunak gaitz egiten du “bestelako” proiektuak soseguz eta patxadaz lantzea.
6	(enpresa munduan) Dotoreago manejatzen naiz gaztelaniaz. Enpresa kontestuan luzimendua garrantzitsua da, euskaraz ez daukat aukera berdina.
7	Gogorik ez.

8	Ingurune erdalduna delako, euskara erabiltzeko behar falta.
9	Administrazio publiko iherarkian goia beti erdaldun; beti borrokan aritu beharraren beldurra eta “karga”: “ya vienen los de siempre”.
10	Prestigioa.
11	Arraro sentitzea; beti gazteleraz egin dugu eta orain...
12	Argumentu falta: zeren izenean defendatu aldaketa?
13	Ezagutza nahikorik ezaren aurrean irakasle papera hartu beharra.
14	Ezagutzeko momentuan, hasierako hizkuntza gaztelania izatea.
15	Taldean, liderraren hizkuntza euskara ez izatea.
16	Inertzia, batez ere ongi errotutako ohitura denean.
17	Esparru profesionalean prestakuntza erdaraz jaso izanak zama handia ezartzen du.
18	Komunikatzeko zailtasuna, eredu falta.
19	Afera psikologikoa: konfiantza eza, lotsa, deserosotasuna.
20	Elebakarren presentzia (matematika kontua).
21	Babes legalik ez.
22	Aita/ama eta haurren artean baliabide falta (ipuin, jolas eta kantuek ez jakitea).
23	12-16 urte bitartekoen artean, bikotea sortzen denean, bestearen gustuko izateko gazteleraz hitz egitea “guay”-ago izatea.
24	Erdaldunen artean euskara egin eta “operatibo” izateari utziko diogun beldurra.
25	Aldi bereko itzulpenak ez dit erabateko konfiantza ematen.
26	“Txipa” aldatzea.
27	Euskara ez dakitenei, hizkuntza ikas dezaten kale baliabideak falta zaizkie, hau da, euskaldunok mintzaguneak eskaini behar dizkiegu eta ez dugu egiten (aurreiritziak).
28	Euskara pixka bat dakienarekin, agurra eta beste bi gauza euskaraz baina segituan gaztelarara jotzen dugu (pazientziarik ez!).
29	Gaiean egon beharra, bestela ahaztu.
30	Helburu mailakatuen falta (aldaketa 0-tik 100era eman nahia).
31	Gaztelaniak batzen gaitu → euskarak banatzen gaitu.
32	Beharrik ez ikustea. Ongi funtzionatu dute lehendik eta ez dute beharrik ikusten.

[ARIKETA – 2 eta 3]

Irudikatu ekintzak edo egoera sozialak, ondorengo sentipen hauek sor ditzaketenak [amorrazioa; enbidia; tokiz kanpo egotea; injustizia; apustua – erronka], pentsatuz sentipen horiek lagungarriak izango direla hautatu duzun arazo horretan hizkuntza ohiturak aldatzeko.

Proposamenak, ideiak, ekintzak...

Bilatzen den sentipena: AMORRAZIOA

1	Klaseak gaztelaniaz ematen has gaitzke, ikasleek ikusteko berek bere aldetik ezer jartzen ez badute euskaldun gisa bizitzeko, guk ere ez dugula jarriko (arazoa: fakultateko ikasleen euskara-erabilera gainbehera).
---	--

Bilatzen den sentipena: ENBIDIA

2	Ikustarazi etorkin askok ikasi dutela euskara nahiko denbora laburrean, eta bertako zaren ikasle, zu, oraindik bidearen oso hasieran zaudela. Etorkin horiekin zuzenean saio batzuk egin, harremanetan jarri.
3	Guraso-haur arteko jolas saio bat, non denek gozatzen baitute. Kanpotik ikusle direnek enbidia latza sentituko dute.
4	Errekonozimendu ekintza publikoa nahiz pribatua.
5	Besteak baino gutxiago izatearen sentsazioa bultzatu: nik egiten dudana hark bi hizkuntzetan egin dezake. Aitortzen ez dugun sentsazioa (ez eta geure buruari ere, behar bada).
6	Nire zailtasuna gaingitu duen lankidea goraiatu dute enpresako ekitaldi handi batean.

Bilatzen den sentipena: TOKIZ KANPO EGOTEA

7	Zer dela eta tokiz kanpo nago? Aztertu, eta irtenbidea eman.
8	Enpresako ekitaldian nik gaztelaniaz hitz egin ondoren, presidenteak berea euskaraz egin du.

9	Nire euskaldun izatea bizitzeko (kontuan hartua izateko) eskatu. Ni ere banaiz, eta hauxe naiz.
10	Euskaraz hitz egiten ari den talde batean, euskaraz hitz egiten ez duenari kasurik ez egitea, taldean ez onartzea.
11	Gehiengoan iritzi eszeptikoak inbaditzen nauenean... onartu inbadituta nagoela eta agertu. Enpatia eskaini beraiei eta nire jarrera mantendu.
Bilatzen den sentipena: INJUSTIZIA	
12	Balore positiboak indartu, haiek injustiziaren kontra egiten dutelako.
13	Euskara besterik ez dakien seme-alabarekin joan naiz medikuarenera eta medikuak ez zekien euskara. Egoera horrek sortutakoa azaldu injustizia horren oihartzuna izan dezakeen leku edo esparru publikoan.
14	Euskaraz hitz egiten ez dutenek ezingo dute ekintzetan parte hartu, kaleratuak izango dira.
Bilatzen den sentipena: APUSTUA	
15	Beste herri eredugarri batzuek, zein ondo egiten duten esan. Haiek bai ondo! Gutxiago izan behar dugu ala?
16	Ezetz eman berba/esamolde baten 5 sinonimo?
17	Epe labur bat jarri, oso gauza lorgarria helburutzat jarri, apustua egin, jakinik irabazi egingo duela.
18	Ostiral honetako 2 orduetan euskara hutsean hitz egiteko gai ez direla esan.
19	Baietz lortu nire osteopatarekin euskaraz elkarriketa osoa egitea, esaldi motzetan oinarrituta izanda ere. Lortu dut !! (TELP tailerra)
20	Ezetz amarekin telefono-solasaldi oso bat euskaraz egin!
21	Ezetz egin bilerak lankideekin euskaraz.
22	Mutilok erronkazaleagoak gara. Ea nork lortu lehenengo bere bikotearekin euskarazko harremana izatea.
Bilatzen den sentipena: (TXARTELEAN ZEHAZTU GABE)	
23	Zenbat eta okerrago jarri kementsuago nik hori gainditzeko, aldeko daudenekin indarrak batuz.
24	Zonaldearen arabera kokatuta dauden umeak euskaraz ikasteko eskubiderik gabe gelditzea.
25	Bi hizkuntza izatea, adieraztea, erakustea... bakar bat izatea baino askoz hobea dela.
26	Lanordu barruan eta doan euskara eguneratzeko klaseak eta ingelesekoak berriz ordainduta eta orduz kanpo.
27	Euskaraz eta gaztelaniaz eta ingelesez oso ondo hitz egiten duten jendearen ereduak eskaini.
28	Gaitasun txapelketak.
29	Lana euskaraz egin ahal izateko nolabaiteko erraztasunak eman: lan-karga gutxitu, ikastaroentzako baimenak...
30	Orain dela urte bat Euskal Herrira iritsitako lagun indioarekin herriko denda euskaldun batean, non gaztelera ohituraz egiten den, euskaraz egingo ditugu erosketak.
31	Euskara debekatu, gure herriko euskara ulertezina baita.
32	Ingelesez egin batzarrak.
33	Euskara hutsean egin dena. Besteak ez badu egiten, kasurik ez.